DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2025

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKOA ETA JASANGARRITASUNA

- Garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak egiten dituzten toki-erakundeei dirulaguntzak 2
- GAUZATU INDUSTRIA programa 4
- INDARTU Programa 7
- BIDERATU BERRIA Programa 9
- KLUSTERREN ANTOLAKUNDE dinamizatzaileen programa 11
- Deskarbonizazio industrialeko programa 13
- HAZITEK 2025 15
- ELKARTEK 2025 18
- EMAITEK INDUSTRIA HOBEA 2025 20
- AZPITEK 2025 22
- BIKAINTEK 2025 24

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak egiten dituzten toki-erakundeei dirulaguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko irailaren 9koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuarena, zeinaren bidez garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak egiten dituzten toki-erakundeei dirulaguntzak emateko oinarriak ezarri eta deialdia egiten baita.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Deialdiaren argitalpenaren esteka:
euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/09/2503974e.shtml
Deialdiaren ebazpenaren argitalpenaren esteka:
euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2026/01/2600130e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburu orokorra da Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko erakundeei laguntzea tokiko mailan garapen jasangarria sustatzen duten jarduerak egiten, lurraldeko ingurumen-erronka nagusiei erantzuten lagunduz.
Hurrengo lerro hauek dira diruz lagundu daitezkeenak:
a) Lurzoruaren babesa Lurzoruaren kutsadura prebenitzeko, ikertzeko eta berreskuratzeko ekintzak.
b) Klima-aldaketa. Klima-aldaketa arintzeko (berotegi-efektuko gasen emisio garbiak murriztea), CO2 xurgatzeko eta egokitzeko ekintzak (plangintza eta ekintzak), Euskal Autonomia Erkidegoan klima-aldaketaren ondorioak murrizteko.
c) Ondare naturala. Euskal Autonomia Erkidegoko dibertsitate biologiko eta geologikoa kontserbatzen, lehengoratzen edo hobetzen laguntzeko ekintzak.
d) Hondakinen kudeaketa eta balorizazioa. Hondakinen kudeaketa arduratsua sustatuko duten ekintzak, oinarritzat hartuta prebentzioa, gaikako bilketa hobetzea, berrerabileraren sustapena eta Eusko Jaurlaritzak ezarritako lege eta ingurumen-baldintzak betetzea.
e) Lurzoruaren tokiko kudeaketa. Lehentasunezko esparruetan berrikuntza eta erakustaldiko proiektu pilotuak garatzea, transferigarriak izan daitezkeenak eta ingurumen-inpaktuak murriztea dakartenak.
f) Jasangarritasunerako hezkuntza. Tokiko 2030 Agendaren eta Eskolako 2030 Agendaren arteko koordinazioa sustatzen duten ekintzak eta horien esparruan ingurumenari buruz sentsibilizatzeko jarduerak.
g) Asteklima 2025. Klima-aldaketaren arloan herritarrak ekintzara mobilizatzeko jarduerak.
Programa honek Diru-laguntzen Planaren bi ildo biltzen ditu: batetik “Garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak egiten dituzten udalentzako dirulaguntzak” eta bestetik “Asteklima. Tokiko eremuan jarduerak sustatzea, herritarrak klima-aldaketaren arloan ekintzara mobilizatzeko”.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025. urtean 264 eskaera jaso ziren guztira. Hona hemen eskaeren banaka pena lerroka: lurzorua berreskuratzea: 12; klima-aldaketa: 57; natura-ondarea: 49; hondakinen kudeaketa eta balorizazioa: 62; lurzoruaren tokiko kudeaketa: 10; iraunkortasunerako hezkuntza: 39; eta Asteklima: 37.

Eskaera horiei dagokienez, 165 proiektu lagundu ziren diruz: 11 lurzorua berreskuratzeko lerroan, 20 klima-aldaketaren lerroan, 19 natura-ondarearen lerroan, 33 hondakinak kudeatzeko eta balioztatzeko lerroan, 6 lurzoruaren tokiko kudeaketaren lerroan, 39 jasangarritasunerako hezkuntzaren lerroan eta 37 Asteklimaren lerroan.

2025eko deialdiaren aurrekontu-zuzkidura 2.619.000 eurokoa izan zen guztira, honela banatuta: 490.000 euro klima-aldaketaren lerrorako; 519.000 euro lurzorua berreskuratzeko; 620.000 euro natura-ondarerako; 450.000 euro hondakinak kudeatzeko eta baloratzeko; 190.000 euro lurzoruaren tokiko kudeaketarako; 200.000 euro iraunkortasunerako hezkuntzarako; eta 100.000 euro ASTEKLIMA lerrorako.

Esleitutako aurrekontua oso-osorik gauzatu zen linea guztietan, Asteklima linean izan ezik. Linea horretan, egindako gastua 64.747,41 eurokoa izan zen, baina horrek ez zuen eraginik izan deialdiko helburu orokorretan.

Lortutako emaitzei eta erabilgarritasunari eta gizarte-inpaktuari dagokienez, aurrekontu-memorian diru-laguntzen aginduetarako erabiltzen den adierazle komuna laguntzak jaso dituzten proiektuen kopurua da. Metatutako terminoetan, 2007tik gaurdaino 2.541 proiekturi eman zaie diru-laguntza, eta guztira 72,6 milioi euroko inbertsio publikoa egin da. Horrek agerian uzten du diru-laguntzen programa hori funtsezko tresna dela toki-mailako ingurumen-jarduerak bultzatzeko eta lurraldean ingurumen- eta gizarte-onura iraunkorrak sortzeko.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Tokiko entitate onuradunen kopurua	130	140
CO_2 tonen murrizketa	1.000	1.500
Intereseko habitat hobetu edo lehengoratuak (ha)	100	125
Hobetutako edo leheneratutako Natura 2000 Sareko azalera (ha)	80	67
Ikertu edo leheneratu diren potentzialki kutsatutako lurzoru hektareak	10	19
Gauzatutako jarduerak	120	110
Mobilizatutako pertsonak	4.000	3.500

1.- Diru-laguntza programaren izenburua

GAUZATU INDUSTRIA programa

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko apirilaren 1ekoa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuarena, zeinak 2025eko ekitaldirako laguntza itzulgarriak deitu eta horien oinarriak onartzen baititu, oinarri teknologikoa duten edo berritzaileak diren enpresa txiki eta ertainak sortu eta garatzeko. Gauzatu Industria programa.

HUTS-ZUZENKETA, honako agindu honena: Agindua, 2025eko apirilaren 1ekoa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuarena, zeinak 2025eko ekitaldirako laguntza itzulgarriak deitu eta horien oinarriak onartzen baititu, oinarri teknologikoa duten edo berritzaileak diren enpresa txiki eta ertainak sortu eta garatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan. Gauzatu industria programa.

AGINDUA, 2026ko otsailaren 17koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuarena, oinarri teknologikoa duten eta/edo berritzaileak diren ETEak sortu eta garatzeko aurrerakin itzulgarrietarako laguntza-aginduak aldatzen dituena. Gauzatu-Industria programa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

Araua:

AGINDUA, 2025eko apirilaren 1ekoa (2025eko apirilaren 11 EHAA, 71. zk.)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/04/2501629e.pdf

HUTS-ZUZENKETA, honako agindu honena: Agindua, 2025eko apirilaren 1ekoa (2025eko maiatzaren 22a EHAA, 95. zk)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/05/2502209e.pdf

AGINDUA, 2026ko otsailaren 17koa (2026ko martxoaren 2a EHAA, 41. zk

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2026/03/2600931e.pdf

EBAZPENA, 2025eko abenduaren 15ekoa, Industria Sustatzeko sailburuordearena, zeinaren bidez argitaratzen baita Gauzatu Industria programako 2025eko ekitaldiko laguntzen onuradunen zerrenda. Gauzatu industria-programaren bidez, teknologia-oinarriko ETEak edo ETE berritzaileak sortu eta garatzeko laguntzak ematen dira. (2026ko urtarrilaren 14a EHAA, 8. zk.)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2026/01/2600128e.pdf

4.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntzaren modalitatea laguntza itzulgarriak ematean datza, 120.000 euroko inbertsio onartua duten eta, aldi berean, inbertsioak hasi eta gehienez 24 hilabeteko epean enpleguak mantentzea eta/edo sortzea dakarten proiektuei.

Lagun daitekeen inbertsioaren % 35erainokoak izan daitezke emango diren laguntza itzulgarriak

Laguntza hauek lortu ahal izango dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan inbertsio-proiektuak egiten dituzten ETEek:

- Oinarri teknologikokotzat jotzen diren enpresa txikientzat: diruz lagun daitekeen inbertsioaren % 35eko laguntza itzulgarriak.
- Oinarri teknologikokotzat jotzen diren enpresa ertainentzat: diruz lagun daitekeen inbertsioaren % 30eko laguntza itzulgarriak.
- Enpresa berritzaile txikientzat (berritzaileak baino ez): diruz lagun daitekeen inbertsioaren % 30eko laguntza itzulgarriak.
- Enpresa berritzaile ertainentzat (berritzaileak baino ez): diruz lagun daitekeen inbertsioaren % 25eko laguntza itzulgarriak

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025ko DEIALDIAREN EMAITZAK

	Enpresa zk.	%	Aurkeztutako inbertsioa	Diruz laguntzeko moduko inbertsioa	Aurrerakin itzulgarria
Aurkeztuak	85				
Emandakoa	64	75%	145,26	91,82	28, 00
Txikiak	*45*	*70%*	*116,22*	*67,29*	21,56
Ertainak	*19*	*30%*	*29,04*	*24,53*	6,44
Atzera egindakoak	5	6%			
Ukatuak	16	19%			

Emandakoak:

	Enpresa zk.	%	Aurkeztutako inbertsioa	Diruz laguntzeko moduko inbertsioa	Aurrerakin itzulgarria
Teknologikoak	22	34%	37,87	33,62	11,46
Txikiak	*16*	*73%*	29,73	*27,40*	*9,59*
Ertainak	*6*	*27%*	8,15	*6,23*	*1,87*
Berritzaileak	42	66%	107,39	58,19	16,54
Txikiak	*29*	*69%*	*86,49*	*39,89*	*11,97*
Ertainak	*13*	*31%*	*20,89*	*18,29*	*4,57*

AURREKONTU-PROGRAMAREN TAMAINAREKIN DUTEN LOTURA

Aurreko ekitaldian baino % 14 enpresa-proiektu gehiago babestu dira (64 eta 56, hurrenez hurren). Inbertsioari dagokionez, enpresa txikiek ertainek baino jarduera handiagoa izan dute, bai inbertsio teknologikoan, bai inbertsio berritzailean. Hala ere, berrikuntzan egindako inbertsioa teknologikoarena baino handiagoa izan da (+% 26), eta enpresa txikiek ahalegin erlatibo handiagoa egin dute (% 69

2025ean eta % 48 2024an). Aldiz, enpresa ertainen garrantzia murriztu egin da (% 31 2025ean eta % 52 2024an).

ONURA ETA INPAKTU SOZIALA

Programak oinarri teknologikoko enpresen eta enpresa berritzaileen sustapenean zein garapen teknologikoaren eta berrikuntzaren sustapenean eragiten du. EAEn eskuragarri dagoen azpiegitura teknologikoa, Teknologiaren Euskal Sarearen bidez, funtsezko elementua da horrelako enpresak sortzeko. Enpresa horiek teknologia-eskatzaile kualifikatu gisa jardungo dute, eta, horrela, eskaintza teknologikoak ematen dituen zerbitzuak hobeto egokitzen lagunduko dute.

Era berean, enplegua sortzea eta mantentzea sustatzen duen programa da, ekonomiaren funtsezko parametroetako bat zuzenean azpimarratuz..

6.- Diru-laguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	**Aurreikuspena**	**Emaitza**
Diruz lagundutako enpresen kopurua	55	64
Eragindako inbertsioa (milioi eurotan).	150	145,26
Konprometitzeko enpleguak (sortzea)	150	150
Finkatzeko enpleguak (mantentzea)	1500	2020

1.- Diru-laguntza programaren izenburua

INDARTU Programa

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko ekainaren 3koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuarena, Indartu programaren 2025eko dirulaguntzen oinarriak onartzen dituena eta deialdia iragartzen duena. Programa horren bidez, dirulaguntzak emango zaizkie enpresei, lehiakortasun-hobekuntza eta garapen ekonomikoa ekarriko duen ekoizpen-inbertsioa egin dezaten, Ezkerralde Hedatua eta Euskal Autonomia Erkidegoko urteko batez besteko langabezia-tasaren parekoa (% 7,4) edo handiagoa duten eskualdeetako beste udalerri batzuk indartzeko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2025eko ekainaren 3koa (EHAA 2025/07/04 126 zk.):
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/04/2401681e.pdf
EBAZPENA, 2026ko otsailaren 26koa, Industria Sustatzeko sailburuordearena, zeinaren bidez jakinarazten baita Indartu Programaren esparruan 2025eko ekitaldian aurreikusitako laguntzen entitate onuradunen zerrenda. Laguntza horiek inbertsio produktiboa egiten duten enpresei emango zaizkie, baldin eta inbertsio horrek lehiakortasuna eta garapen ekonomikoa hobetzen baditu, Ezkerralde Hedatua eta Euskal Autonomia Erkidegoko urteko batez besteko langabezia-tasaren parekoa (% 7,4) edo handiagoa duten eskualdeetako beste udalerri batzuk indartzeko. Indartu 2025 Programa.. (EHAA 2026/03/06 45 zk.)
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2026/03/2601018e.pdf

4.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa itzuli beharrik gabeko laguntzak lortzera bideratutako finantza-tresna da. EAEko eremu behartsuetan dauden enpresa handiei eta eremu behartsu horietan dauden enpresa txiki eta ertainei edo EAEko batez besteko langabezia-tasa bera edo handiagoa (% 7,4) duten eskualdeetako udalerriei zuzentzen zaie.
2022-2027rako eskualde-helburuko estatu-laguntzei buruzko zuzentarauetan (EBAO, C 153, 2021-04-29koa) ezarritakoari heltzen diote eremu behartsuek, eta laguntza horiek 2025eko abenduaren 31ra arte luzatzen dira.
Laguntza jaso dezakeen inbertsioaren % 10eko (enpresa handia) edo % 15eko (ETEak) itzuli beharrik gabeko dirulaguntza ematean datza laguntza horiek. Diruz laguntzeko jarduerak ezin dira hasi eskabidea aurkeztu baino lehen (Erkidegoko arauak eskatzen duen eragin pizgarria betetzeko).
Gauzatze-aldia bi urte naturalekoa da, eskaera egiten denetik zenbatzen hasita, ezaugarrien eta enpresa-planen arabera. Gainera, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:
Enpresa handiek 1.500.000,00 euroko inbertsio onartua egin beharko dute gutxienez, eta ETEek 200.000,00 eurokoa. Halaber, kontuan hartuko dira enpresa handien kasuan gutxienez 25 enplegu sortzen dituzten enpresen inbertsioak, nahiz eta aurretik adierazitako onartutako gutxieneko inbertsioetara ez iritsi, eta enpresa txiki eta ertainen kasuan, gutxienez 5 enplegu garbi sortzen dituztenak.

Kontuan hartu beharreko inbertsioak eta enplegu-sorrera erakunde juridiko bakar batek egin beharko ditu, eta enpresa-taldeen kasuan, % 100eko akzio-partaidetzarekin, baldin eta ekoizpen-zentro bat baino gehiago badute, arau honen irizpideak betetzen dituzten eta inbertsioen xede diren produkzio-zentroetan edo produkzio-zentroetan soilik.
Dirulaguntzek gehienez ere 3.000.000,00 euroko muga izango dute enpresa edo talde bakoitzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2024ko DEIALDIAREN EMAITZAK:
Onartutako proiektuen kopurua: 57
Eragindako inbertsioa: 138.181.309,38 euro
Mantendutako lanpostuak: 2.411. Onartutako lanpostuak: 269
Emandako diru-laguntza, itzulgarria ez dena 19.601.051,00 euro.
AURREKONTU-PROGRAMAREN TAMAINAREKIN DUTEN LOTURA
57 enpresa-proiektu lagundu dira (aurreikusitako 60en % 95), 138,18 milioi euroko inbertsio induzitua metatzen dutenak (aurreikusitako 125en % 111) eta 269 lanpostuko enplegu-sorrera (aurreikusitako 250en % 108).
ONURA ETA INPAKTU SOZIALA:
Programa horrek Ezkerralde Zabalduaren parametro makroekonomikoak hobetzen ditu, batez ere enplegua zuzenean edo zeharka sortzea, bai eta EAEko batez besteko langabezia-tasa bera edo handiagoa (% 7,4) duten beste udalerri batzuk ere.

6.- Diru-laguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	**Aurreikuspena**	**Emaitza**
Diruz lagundutako enpresen kopurua	60	57
Eragindako inbertsioa (milioi eurotan).	125	138,18
Enpleguak	250	269

1.- Diru-laguntza Programaren izenburua

BIDERATU BERRIA Programa

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko urriaren 17koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita krisialdian dauden enpresak berregituratzeko eta berrabiarazteko laguntzak ezartzen dituen Bideratu Berria programa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

Agindua, 2017ko urriaren 17koa (EHAA 2017/10/2017 203 zk.):
https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2017/10/1705093e.shtml
EBAZPENA, 2025eko uztailaren 22koa, Industria Sustatzeko sailburuordearena, krisian dauden enpresak berregituratzeko eta bultzatzeko laguntzen 2025eko deialdiaren berri ematen duena. Bideratu Berria programa. (EHAA 2025/08/22 151 zk.)
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/08/2503519e.pdf

4.- Diru-laguntzen programaren deskribapen laburra eta helburuak

BIDERATU BERRIA programaren bidez, neurriak gauzatzea sustatzen da, epe ertain eta luzera bideragarritasuna ezartzeko egindako berregituratze-planen barruan.
Laguntzak aurrerakin itzulgarriak izango dira. Onartutako laguntzaren zenbatekoa planeko berregituratze-neurrien kostu osoaren % 50eraino heldu daiteke, baldin eta laguntzen onuradunak, bere baliabideak erabilita, hein berean laguntzen badu neurriak finantzatzen.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2024ko DEIALDIAREN EMAITZAK:
Proiektu kopurua: 3
Onartutako proiektuak: 1
Onartutako aurrerakin itzulgarriak: 575.000 euro
AURREKONTU-PROGRAMAREN MAGNITUDEEKIKO LOTURA
Eskaera bat babesten da, ukatzeko hasierako ebazpenaren aurka enpresak errekurtsoa jarri ondoren.
Dirulaguntza 575.000 eurokoa izango da (enpresak 623.399 euro jarriko ditu).
ONURA ETA INPAKTU SOZIALA:
Programa honen bidez, enpresa txiki eta ertainen beharrak ase nahi dira. Izan ere, krisiak eraginda, enpresa txiki eta ertainek benetako etorkizun baikorra dute, lehiakorrak izateko eta, horrela, bideragarritasuna berrezartzeko behar besteko indarra lortzeko.

6.- Diru-laguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	**Aurreikuspena**	**Emaitza**
Diruz lagundutako enpresen kopurua	2	1
Enpresek jarritako baliabide propioak (milioi eurotan).	1	0,623

1.- Diru-laguntza Programaren izenburua

KLUSTERREN ANTOLAKUNDE dinamizatzaileen programa

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko abenduaren 17koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko klusterrak dinamizatzeko erakundeentzako 2025eko ekitaldirako dirulaguntzen oinarriak onartzen dituena eta deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2024ko abenduaren 17koa (EHAA, 253. zk., 2024/12/31)
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/12/2406030e.pdf
EBAZPENA, 2026ko otsailaren 26koa, Industria Sustatzeko sailburuordearena, zeinaren bidez jakinarazten baita Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren 2024ko abenduaren 17ko Aginduaren babesean emandako laguntzak 2025eko ekitaldian jasoko dituzten entitate onuradunen zerrenda; agindu horren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko klusterrak dinamizatzeko erakundeentzako dirulaguntzen oinarriak onartu eta deialdia egiten da 2025eko ekitaldirako. (EHAA 45. zk., 2026/03/06)
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2026/03/2601017e.pdf

4.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua enpresen lehiakortasunaren hobekuntza sustatzea da, trantsizio teknologiko-digitala, ingurumenarekiko klimatikoa eta demografiko-soziala jorratuz, bai eta enpresen arteko eta sektoreen arteko lankidetza ere.

Agindu honetan jasotako laguntzak itzuli ezingo diren dirulaguntzak dira eta honako laguntza-muga hauek dituzte:

a) Nazioartekotze-prozesurako laguntza-zerbitzuak eta jarduketak: onartutako gastuen % 40, gehienez.
b) BasqueTrade & Investment agentziarekin elkarlanean egindako proiektuak eta jarduketak izanez gero, laguntzaren gehieneko intentsitatea onartutako gastuen % 50era arte handituko da.
c) Enpresek proiektuetan parte hartzeko eta haiei laguntzeko zerbitzuak (nazioartekotzean salbu): onartutako gastuen % 40, gehienez.
d) Zaintza-, informazio-, benchmarking- eta estrategia-zerbitzuak: onartutako gastuen % 40, gehienez.
e) Zabalkunde-jarduerak, jardunaldiak, topaketak eta ekitaldiak (nazioartekoak salbu): onartutako gastuen % 40, gehienez
f) Kluster sustapeneko eta garapeneko jarduerak, bazkideak erakartzea, komunikazioa: onartutako gastuen % 40, gehienez
g) Foroak dinamizatzeko zerbitzuak, jarduketa-ildoak eta lankidetza-proiektuak definitzeko: onartutako barneko eta kanpoko gastuen % 50eraino.
h) Erronka partekatuko proiektu-taldeak dinamizatzeko zerbitzuak –aurretik f) hizkian landua–: onartutako barneko eta kanpoko gastu guztien % 50eraino.

i) ELKARTEKO talde teknikoaren gaitasunak garatzea: onartutako barneko eta kanpoko gastu guztien % 40raino

Onuradun bakoitzak 450.000,00 euroko laguntza jaso ahal izango du gehienez.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025eko datuak	ODS-Agendak 2030	Nazioartekotzea	Teknologia eta Trantsizioak	Berrikuntza eta Estrategia	Guztira
Diru-laguntza	128.185	980.000	1.463.781	1.428.034	4.000.000

AURREKONTU-PROGRAMAREN MAGNITUDEEKIKO ERLAZIOA

Aurreko deialdietatik ikusi da Klusterren Erakunde Dinamizatzaileen ekarpenak Eusko Jaurlaritzarenak baino erritmo handiagoan hazi direla. Horrela, 2025ean, Klusterraren urteko Jarduera Planak (NPB) osatzen dituzten ekintzen hautagarritasuna ebaluatu ondoren, finantzaketa-beharra 6.684.886 eurokoa izan zen (aurreko deialdian baino % 30 gehiago), Sailak dirulaguntza gisa ematen duen 4.000.000 euroko ekarpena deskontatu ondoren, 2024an baino % 3 gehiago.

ERABILGARRITASUNA ETA GIZARTE-ERAGINA

Programa honek euskal enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzen du, garapen teknologikoaren, berrikuntzaren eta nazioartekotzearen arloetako lankidetzaren eta lanaren bidez.

Aurrekontu-zuzkidura Klusterren Erakunde Dinamizatzaileen beharraren % 37,43ra iristen baita.

6.- Diru-laguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Erreferentziako kluster-eremuen kopurua	16	16
Erakunde dinamizatzaile aktiboen kopurua	26	26
KEBetako barne-taldeen dedikazioa (orduak)	160.000	190.391
Jarduketen finantzaketa pribatuaren balioa (KEBetako kideak) (€)	5.600.000	6.684.886

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Deskarbonizazio industrialeko programa

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko apirilaren 15ekoa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoan inbertsioak egiten dituzten eta deskarbonizazioaren bidez beren ekoizpen-prozesu industrialetan ingurumenaren babes-maila hobetzen duten enpresentzako 2025eko ekitaldirako dirulaguntzen programa iragartzen baita. «Deskarbonizazio Industrialeko Programa».

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2025eko apirilaren 15ekoa (EHAA, 2025-05-07 asteazkena, 84. zk.).
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/05/2501914e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa hori ezartzeko, honako hauek hartuko dira kontuan: 2022-2027rako eskualde-helburuko estatu-laguntzei buruzko jarraibideak (EO, C 153, 2021-04-29koa), 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamendua, zenbait laguntza-kategoria barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dituena, Itunaren 107. eta 108. artikuluak aplikatuz (EO, L 187, 2014-06-26koa), ingurumena babesteko laguntzen atalaren 36. eta 38. artikuluen azken aldaketan (2023ko martxoa) ezarritakoaren arabera, eta Europako Batzordeak Estaturako 2022-2027 eskualde-laguntzen mapa onartzea (SA.100859, 2022-03-17ko Erabakia).

Europako erregelamenduaren bertsio berriak aukera ematen du, halaber, laguntza-intentsitatea handitzeko enpresa txiki eta ertainen kasuan, edo laguntzaren xede den inbertsioa Ezkerralde Zabalduaren Eremuan kokatzen bada, Euskal Autonomia Erkidegoko eremu behartsuen konfigurazio berriaren arabera (2022-2027).

Dirulaguntzak norgehiagoka-prozeduraren bidez ematen dira, itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira, eta ehuneko hauek izango dituzte:

- Laguntza jaso dezakeen inbertsioaren % 20.
- Laguntzaren intentsitatea 5 puntu handituko da enpresa ertainei emandako laguntzen kasuan, eta 10 puntu enpresa txikiei emandako laguntzen kasuan.
- Laguntzaren intentsitatea ehuneko bi puntu eta erdi (% 2,5) handituko da Euskal Autonomia Erkidegoko Ezkerralde Zabalduan kokatutako inbertsioen kasuan.

Diru-laguntzek 1.500.000,00 euroko gehieneko muga izango dute enpresa eta/edo enpresa-talde bakoitzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025eko DEIALDIAREN EMAITZAK:

AURKEZTUTAKO ESKAERAK: 155

Eskaera eraginkorrak: 151 (4 errepikatuta)

Aurkeztutako inbertsioa: 232.740.391,24 €

Enpresen tamaina: enpresa handia (48), ETE ertaina (22), ETE txikia (81)

ONARTUTAKO PROIEKTUAK: 59

Diruz lagun daitekeen inbertsioa: 109.931.968,53 €

Emandako diru-laguntza: 22.000.000,00 €

Enpresen tamaina: Enpresa Handia (27), ETE Ertaina (11), ETE Txikia (21)

Lurraldeak: Araba (8), Bizkaia (24, 2 Ezkerralde Zabalduan) eta Gipuzkoa (27)

AURREKONTU-PROGRAMAREN TAMAINAREKIN DUTEN LOTURA

2025eko hirugarren deialdiko datuek nabarmen gainditzen dituzte 2023ko eta 2024ko deialdien ondorioz ezarritako hasierako aurreikuspenak. Edizio honetan aurrekontua agortu da.

ONURA ETA INPAKTU SOZIALA:

Programa honek azpimarratzen du karbono gutxiko ekonomia baterantz sendo aurrera egiteko konpromisoa, enplegua sortzeko eta industria- eta teknologia-garapenerako aukera gisa, nazioartean adostutako klimaren neutraltasun-helburuak betetzeko konpromisoa hartuz, eta batez besteko tenperatura globalak 2 gradu zentigraduak gainditzea eta 2050ean berotegi-efektuko gasen emisioan herrialde neutroa izatea saihesten lagunduz.

Laguntza-programa honen kudeaketan enpleguaren bilakaeran duen eragina baloratu da, industria-sektorean emakumeen presentzia sustatzeko asmoz. Zentzu horretan, 10.000 langiletik gorako enplegua egonkortu da, eta emakumeen intzidentzia % 15ekoa da. Horrez gain, egiaztatu da laguntza horien onuradun diren enpresek berdintasun-politikak dituztela.

6.- Diru-laguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Diruz lagundutako enpresen kopurua	50	59
Eragindako inbertsioa (milioi eurotan).	100	109.93
Enpleguak	500	>10.000
Emakumeak	100	>1.500
Gizonak	400	>8.500

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

HAZITEK 2025

2.- Araua

Agindua, 2024ko abenduaren 23koa, Industria, Energia Trantsizio eta Jasangarritasuneko sailburuarena, 2025eko ekitaldian enpresen I+G bultzatzeko Hazitek programaren oinarriak ezarri eta deialdia egiten duena.Agindua, 2025eko uztailaren 15ekoa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita 2025eko ekitaldian Enpresen I+G bultzatzeko Hazitek programaren oinarriak ezarri eta deialdia egiten duen 2024ko abenduaren 23ko agindua. Ebazpena, 2025eko irailaren 9koa, Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena, zeinaren bidez jakinarazten baita handitu egin direla 2025eko ekitaldian enpresen I+G bultzatzeko Hazitek programaren deialdira bideratutako baliabide ekonomikoak.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Agindua, 2024ko abenduaren 23koa, Industria, Energia Trantsizio eta Jasangarritasuneko sailburuarena, 2025eko ekitaldian enpresen I+G bultzatzeko Hazitek programaren oinarriak ezarri eta deialdia egiten duena.
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/12/2406031e.pdf
Agindua, 2025eko uztailaren 15ekoa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita 2025eko ekitaldian Enpresen I+G bultzatzeko Hazitek programaren oinarriak ezarri eta deialdia egiten duen 2024ko abenduaren 23ko agindua.
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/07/2503195e.pdf
Ebazpena, 2025eko irailaren 9koa, Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena, zeinaren bidez jakinarazten baita handitu egin direla 2025eko ekitaldian enpresen I+G bultzatzeko Hazitek programaren deialdira bideratutako baliabide ekonomikoak.
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/09/2503934e.pdf
Ebazpena, 2025eko irailaren 19koa, Teknologia, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena, 2025eko ekitaldiko Hazitek programan aurkeztu diren eskabideak ebazten dituena
https://www.euskadi.eus/contenidos/anuncio_tablon/resolucion_hazitek_fase_2_2025/eu_def/adjuntos/Resolucion-Concesion-HAZITEK-2025-SIGNED-JG.pdf
https://www.euskadi.eus/contenidos/anuncio_tablon/resolucion_hazitek_fase_2_2025/eu_def/adjuntos/ANEXO-RESOLUCION-HAZITEK-2025.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-sektorean eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean (Euskadi 2030) bildutako espezializazio-esparruetan industria-ikerketako edo garapen esperimentaleko proiektuak, lehiakorrak zein estrategikoak, egiten laguntzea.
Programa honek bi proiektu-tipologia babesten ditu:
1.- Izaera lehiakorreko ikerketa- eta garapen-proiektuak

Lehiakorrak diren I+Gko proiektutzat hartuko dira produktu, prozesu edo zerbitzu berriak garatzera bideratutako edo lehendik daudenak nabarmen hobetzea ahalbidetzen duten Ikerketa Industrialeko edo Garapen Esperimentaleko proiektuak.

Izaera lehiakorreko I+G proiektuetarako laguntzak eskuratu nahi dituzten proiektuek I+G+b arloko jardueren multzo koherente bat izan beharko dute, argi eta garbi produktu, prozesu edo zerbitzu originalak eta lehendik daudenak baino handiagoak garatzera bideratuak, merkatuaren eta gizartearen eskaerei hobeto erantzuteko.

Dauden produktuak/prozesuak hobetzera bideratutako proiektuak edo garatutako produktuak/prozesuak produktu/prozesu berritzat jotzeko berritasun-mailarik ez dutenak ez dira «produktu/prozesu berriak garatzeko proiektutzat» hartuko. Dirulaguntzetatik kanpo geratuko dira produktuen, ekoizpen-lerro eta -prozesuen, dauden zerbitzuen eta bestelako eragiketa arrunten ohiko edo aldizkako aldaketa arruntak, nahiz eta aldaketa horiek hobekuntzak ekar ditzaketen.

2.-Ikerketa industrialeko eta garapen esperimental estrategikoko proiektuak

Diruz lagundu ahal izango dira Euskadi 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren Espezializazio Eremuetan jasotako industria-ikerketako eta garapen esperimental estrategikoko proiektuak, baldin eta Ikerketa eta Garapen Teknologiko eta Berrikuntzan lankidetza publiko-pribatua sustatzen badute, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomian trakzio-eragina izan dezaten eta ETEen esku-hartzea eta Horizonte Europa Programarako sarbidea errazten badute.

Diruz lagunduko dira Euskadi 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren barruan dauden espezializazio-esparruetako industria-ikerketako eta garapen esperimental estrategikoko proiektuei dagozkien I+G+b jarduerak, produktu, prozesu edo zerbitzu berriak edo hobeak lortzeko ezagutza erabilgarri berriak sortzera, eta teknologia estrategiko berriak integratzera eta patente berriak sortzera bideratuta daudenak. Hori guztia enplegua sortzera eta euskal enpresa-sarea dibertsifikatzera bideratuta dago, baita enpresa-lehiakortasuna hobetzera ere.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

	Lagundutako proiektuak	Onartutako aurrekontua	Dirulaguntza
Estrategikoak	35	148,8 mill. €	61 mill. €
Lehiakorrak	727	201,9 mill. €	59 mill. €
GUZTIRA	**762**	**350,7 mill. €**	**120 mill. €**

2025eko deialdia 120 milioi eurokoa izan zela kontuan hartuta, aurrekontuaren gauzatze-maila % 100ekoa da.

Hazitek lehiakorren ildoaren helburua enpresen gaitasuna eta ezagutza handitzea da, hazkunde ekonomikoa bultzatuz. Gainera, jasangarritasunetik eta gizarte dinamiko, konplexu eta global baten behar

berrietatik eratorritako eskaera zientifiko-teknologikoei erantzuteko aukera ematen du. Bestalde, Hazitek estrategikoen ildoak lankidetza publiko-pribatua bultzatu nahi du, arlo estrategikoetan ikerketak garatuko dituzten enpresa-partzuergoak sortzea sustatuz. Halaber, Euskadiko ekonomian trakzio-efektua eragin nahi du, eta zientzia-teknologia-enpresa sistemako eragileen artean I+G+b arloko lankidetza-kultura sustatu.

Oro har, bi ildoen gizarte-inpaktua enpresa-lehiakortasun handiago batean oinarritutako hazkunde ekonomikoa da, produktu, prozesu eta zerbitzu berriak garatzeari, patenteak sortzeari eta oinarri zientifiko-teknologikoko enpresa berriak sortzeari esker. Horrek guztiak enplegua sortzen eta euskal enpresa-sarea dibertsifikatzen laguntzen du.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Aurkeztutako proiektu lehiakorren kop.	850	936
Lagundutako proiektu lehiakorren kop.	600	727
Proiektu lehiakorrak dituzten aurkeztutako enpresen kop.	875	911
Proiektu lehiakorrak dituzten lagundutako enpresen kop.	650	770
Aurkeztutako proiektu estrategikoen kop.	45	48
Lagundutako proiektu estrategikoen kop.	32	35
Proiektu estrategikoak dituzten aurkeztutako enpresen kop.	225	255
Proiektu estrategikoak dituzten aurkeztutako enpresen kop.	180	193
Aurkeztutako aurrekontua, guztira	545 mill. €	560 mill. €
Onartutako aurrekontu osoa (eragindako inbertsioa):	275 mill. €	351 mill. €

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

ELKARTEK 2025

2.- Araua

Agindua, 2024ko abenduaren 17koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen eta deitzen baita arlo estrategikoetan elkarlaneko ikerketa sustatzeko laguntzen programa (Elkartek Programa - 2025).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Agindua, 2024ko abenduaren 17koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen eta deitzen baita arlo estrategikoetan elkarlaneko ikerketa sustatzeko laguntzen programa (Elkartek Programa - 2025).
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/12/2405944e.pdf
Ebazpena, 2025eko uztailaren 23koa, Industria Sustatzeko sailburuordearena, zeinaz Elkartek programaren 2025eko deialdiaren esparruan aurkeztutako eskaerak ebazten dira
https://www.euskadi.eus/contenidos/anuncio_tablon/anuncio_elkartek_2025/es_def/adjuntos/Resolucion-de-Concesion.pdf
https://www.euskadi.eus/contenidos/anuncio_tablon/anuncio_elkartek_2025/es_def/adjuntos/Anexo-Resolucion-de-Concesion.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarea osatzen duten ikerketa, garapen eta berrikuntzako erakundeek egindako Elkarlaneko Ikerketa sustatzeko emandako itzuli beharrik gabeko laguntzak, Euskadiko 2030erako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean jasotako espezializazio-esparruetan.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Lagundutako proiektuak	Zenb.	Onartutako aurrekontua	Emandako dirulaguntza
Elkarlaneko funtsezko ikerketa-proiektuak	43	45,1 mill. €	45,1 mill. €
Industria-potentzial handiko ikerketa-proiektuak	8	3,1 mill. €	1,5 mill. €
Interes bereziko ekintza osagarriak	4	0,7 mill. €	0,4 mill. €

GUZTIRA	**55**	**48,9 mill. €**	**47 mill. €**

Aurrekontu-zuzkidura: 47.000.000 €; horietatik 23.000.000 €2025. urteari dagozkio eta 24.000.000 €2026. urteari.

2025eko deialdia 47 milioi eurokoa izan dela kontuan hartuta, aurrekontuaren gauzatze-maila % 100ekoa da.

Finantzatutako proiektuak bat datoz Euskadi 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean definitutako espezializazio-eremuekin.

Programaren helburua da ezagutza sortzea espezializazio-eremu horietan, Euskal Autonomia Erkidegorako estrategikotzat jotzen baitira.

Eragin soziala: Garapen ekonomikorako ezagutza estrategikoa sortzen, enpresen lehiakortasuna sustatzen eta etorkizunean enpresa-sektore berriak sortzen laguntzen du.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Aurkeztutako arlo estrategikoetako lankidetza-proiektuen kopurua	75	121
Lagundutako lankidetzazko funtsezko ikerketa-proiektuen kopurua	35	43
Industria-potentzial handiko proiektu lagunduen kopurua	10	8
Interes bereziko ekintza lagunduen kopurua	6	4
Lagundutako ZTBESeko eragileen kopurua	65	65
Aurkeztutako aurrekontua, guztira	135 mill. €	163,1 mill. €
Onartutako aurrekontua, guztira (eragindako inbertsioa)	48 mill. €	48,9 mill. €

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

EMAITEK INDUSTRIA HOBEA 2025

2.- Araua

Agindua, 2025eko ekainaren 17koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuarena, zeinaren bidez, 2025eko ekitaldirako Industria Hobea-Emaitek Programaren dirulaguntzen oinarri arautzaileak onartzen baitira eta deialdia egiten baita.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Agindua, 2025eko ekainaren 17koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuarena, zeinaren bidez, 2025eko ekitaldirako Industria Hobea-Emaitek Programaren dirulaguntzen oinarri arautzaileak onartzen baitira eta deialdia egiten baita.
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/07/2502944e.pdf
Ebazpena, 2025eko urriaren 28 koa, Industria Sustatzeko sailburuordearena. honen bidez, Emaitek Industria Hobea programaren 2025eko deialdiaren esparruan aurkeztutako eskaerak ebazten dira.
https://www.euskadi.eus/contenidos/anuncio_tablon/resolucion_emaitek_hobea_2025/es_def/adjuntos/Resolucion-definitiva-concesion_EMAITEK_2025.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko foku anitzeko teknologia-zentroen jarduera ez-ekonomikorako laguntza publikoen 2025eko deialdiaren oinarriak ezartzea eta deialdia bera egitea, zentro horiei finantzaketa esleitzeko, beren jarduera orokorraren emaitzak ebaluatu eta aztertu ondoren.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Aurrekontu-zuzkidura: 58.587.783 €.
2025. urteko deialdiaren aurrekontuaren gauzatze-maila % 100ekoa izan da.
Deialdi honen esparruan, 11 zentro teknologiko multifokalizaturen jarduera ez-ekonomikoa babestu da. Zentroen betetze-maila, batez beste, 2024an % 92,61 izatetik 2025ean % 92,89 izatera igaro da. Programaren helburua zentro teknologikoei laguntzea da, beren jardueraren emaitzen ebaluazio eta azterketa globalari lotutako finantzaketa esleituz. Horretarako, adierazleen aginte-taula bat erabiltzen da, ekitaldi bakoitzerako ezarritako helburuekin.
Eragin soziala: Programak sistemako eragileen ezagutza hobetzen eta ikerketaren emaitzak enpresa-sarera transferitzen laguntzen du, sustapen ekonomikoa, enpresen lehiakortasuna eta EAEko garapen iraunkorra sustatuz.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Lagundutako zentroen kopurua	15	11
Lagundutako zentroetako Aginte Taularen batez besteko betetze-maila	92,29%	92,89%
Argitalpen zientifikoen kopurua	1.355	1.177
Eskatutako patenteen kopurua	132	115
Azken 5 urteotan sortutako start up-en fakturazioa	18,5 mill. euros	14,5 mill. euros

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

AZPITEK 2025

2.- Araua

Agindua, 2025eko ekainaren 17koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuarena, Azpitek 2025 programaren oinarriak onartzeko eta deialdia egiteko, ikerketa-azpiegiturak eskuratu eta eguneratzeko laguntzetarako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Agindua, 2025eko ekainaren 17koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuarena, Azpitek 2025 programaren oinarriak onartzeko eta deialdia egiteko, ikerketa-azpiegiturak eskuratu eta eguneratzeko laguntzetarako.
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/06/2502842e.pdf
Ebazpena, 2025eko urriaren 23koa, Industria Sustatzeko sailburuordearena. Azpitek programaren 2025eko deialdiaren esparruan aurkeztutako eskaerak ebazten dituena. https://www.euskadi.eus/contenidos/anuncio_tablon/resolucion_azpitek_2025/es_def/adjuntos/Resolucion-Concesion_AZPITEK_2025.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da 2025eko ekitaldian eman beharreko laguntza-programa bat arautzea, I+G+b garatzeko beharrezkoa den ikerketa-azpiegitura eta ekipamendua eskuratu, instalatu eta eguneratzeko, eta etorkizunean haren emaitzak baliozkotzeko eta demostratzeko. Entitate zientifiko-teknologikoek egingo dute, hau da, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarean akreditaturik dauden foku anitzeko zentro teknologikoek. Hori guztia emaitzen kalitatea eta emaitzen eragin zientifiko-teknologikoa, ekonomikoa eta soziala hobetzera bideratuta dago.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Lagundutako proiektuak	Zenb.	Onartutako aurrekontua	Emandako dirulaguntza
Azpiegitura zientifiko-teknologikoen proiektuak	12	13,3 mill. €	9 mill. €

Aurrekontu-zuzkidura: 9.000.000 €.

2025eko deialdiak 9 milioi euroko aurrekontua zuenez, osorik gauzatu zen (% 100). Euskadik zientziatik eta teknologiatik dituen erronka sozioekonomikoei erantzuten jarraitzeko, ezinbestekoa da azpiegitura zientifiko-teknologiko bikainak izatea, lurraldean eragina duten hiru trantsizio handiei heltzeko: trantsizio teknologiko-digitala, trantsizio energetiko-klimatikoa eta trantsizio sozial eta sanitarioa.

Azpiegitura zientifiko-teknologikoak I+G+Bko ekosistemen eta berrikuntzan oinarritutako balio-kateen bizkarrezurra dira. Ildo horretan, azpiegitura zientifiko-teknologikoek teknologiaren garapena eta baterako sorkuntza errazten dute, kontzeptuaren probatik eta laborategi-inguruneetan baliozkotzetik hasi eta ingurune industrialetan prototipoak erakusteraino. Horren guztiaren helburua da teknologia-ezarpena bizkortzea eta Euskadin duen eragin sozioekonomikoa maximizatzea.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Aurkeztutako proiektuen kopurua	30	22
Lagundutako proiektuen kopurua	15	12
Aurkeztutako aurrekontua, guztira	16 mill. euros	13,7 mill. euros
Onartutako aurrekontua, guztira (eragindako inbertsioa)	10 mill. euros	9,1 mill. euros

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

BIKAINTEK **2025**

2.- Araua

Agindua, 2023ko otsailaren 22koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan doktore-titulua dutenak kontratatuz eta industria-doktoregoak eginez I+G proiektuak egiteko laguntzak –Bikaintek programa–.

Ebazpena, 2025eko martxoaren 4koa, Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita Euskal Autonomia Erkidegoan doktore-titulua duten ikertzaileak kontratatuz eta industria-doktoregoak eginez I+G proiektuak garatzeko laguntzen 2025eko ekitaldiko deialdia. Bikaintek programa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Agindua, 2023ko otsailaren 22koa:

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/03/2301130e.pdf

Ebazpena, 2025eko martxoaren 4koa:

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/03/2501149e.pdf

Ebazpena, 2025eko urriaren 15ekoa, Teknologia, Berrikuntza Eraldaketa eta Digitaleko sailburuordearena. honen industria-doktoregoak bidez, egiteko dirulaguntzen deialdia ebazten da, Bikaintek 2025 programa.

.https://www.euskadi.eus/contenidos/anuncio_tablon/res_2993580/es_def/adjuntos/B2-RESOLUCION-BIKAINTEK-2025.pdf

Ebazpena, 2025eko urriaren 15ekoa, Teknologia, Berrikuntza Eraldaketa eta Digitaleko sailburuordearena. honen bidez, doktore-titulua duten pertsonak kontratatuz, i+g-ko egiteko dirulaguntzen proiektuak deialdia ebazten da, Bikaintek 2025 programa.

.https://www.euskadi.eus/contenidos/anuncio_tablon/res_2993554/es_def/adjuntos/B1-RESOLUCION-BIKAINTEK-2025.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen helburua da I+G proiektuak garatzen laguntzea, euskal produkzio-sarearen lehiakortasuna handitzeko, talentua sartzeari esker, doktore-titulua duten ikertzaileak kontratatuz eta/edo industria-doktoretzak eginez, bai enpresetan, bai Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko zenbait eragiletan (Ikerkuntza Kooperatiboko Zentroak, Zentro Teknologikoak eta enpresetako I+G unitateak).

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Deialdiaren aurrekontu osoa 5.719.687 eurokoa izan zen: 1.449.687 euroko ordainketa-kreditua 2025eko ekitaldirako, 2.090.000 eurokoa 2026rako, 1.430.000 eurokoa 2027rako eta 750.000 eurokoa 2028rako.
Aurkeztutako eskabideak 55 izan ziren; horietatik 32 doktoreen kontratazio-lerrora aurkeztu ziren, eta 23 doktorego industrialen lerrora. Guztira 32 pertsona kontratatu ziren, horietatik 19 (% 59) emakumeak eta 13 (% 41) gizonak.
Aurrekontuaren gauzapena % 72koa izan da.
Eragin soziala: doktore prestatuen kontratazioak enpresen talentu-maila eta lehiakortasuna handitzen ditu, enpresa-ehunari kualifikazio handia eta ikerketan eta garapenean trebetasun aurreratuak dituzten pertsonak gehitzen baitizkio.
Bestalde, doktoregoa ZTBESko enpresetan edo eragileetan egiten ari diren pertsonak kontratatzeak lurraldean talentua atxikitzea du helburu, doktoregaiei beren tesia enpresa-inguruneetan garatzeko aukera emanez. Horrek erraztu egiten du aplikatutako I+G proiektuetan integratzea, eta, aldi berean, indartu egiten du euskal industria-sarearen lehiakortasuna.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Lagundutako proiektuen kopurua (doktore-titulua duten pertsonen kontratazio berriak)	50	22
Doktore-titulua duten pertsonak kontratatu dituzten lagundutako enpresen kopurua	35	23
Doktore-titulua duten pertsonak kontratatu dituzten lagundutako ZTBESeko eragileen kop.	5	4
Kontratatutako emakume kop.	25	13
Kontratatutako gizon kop.	25	19
Industria-doktoregoak egiteko proiektu lagunduen kop.	35	21
Industria-doktoregoak egiteko lagundutako enpresen kop.	15	13
Industria-doktoregoak egiteko lagundutako ZTBESeko eragileen kop.	6	6
Industria-tesiak egiten ari diren emakumeen kop.	18	9
Industria-tesiak egiten ari diren gizonen kop.	17	12
Onartutako aurrekontua, guztira (eragindako inbertsioa)	8 mill. euros	7 mill. euros